GETXO KULTURA
ZIGOR GOROSTIOLA SAUCE (1. guztira 1)
KULTUR ETXEKO ZUZENDARI TEKNIKOA / DIRECTOR TÉCNICO DE LA CASA DE CULTURA
Sinaduraren data: 11/12/2025
HASH: d4f5578b4d504449c3aa2f76305870499

MUXIKEBARRI OSORIK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 35

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA 38
2. EREMU FISIKOA 38
3. ESPAZIO-ESPARRUA 38
4. ARAUDIA 39
4.1. ESTATUKO ARAUDIA 39
4.2. AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA 40
5. LANEN ZEHAZTAPENA 41
5.1. ALDIZKAKO GARBIKETA LANAK 41
5.2. MAIZTASUNEZ EGIN BEHARREKO GARBIKETA LANAK 41
5.2.1. MANTENTZE GARBIKETA 41
5.2.2. GARBIKETA SAKONA 42

GARBIKETA FITXETAN JASOTAKO MAIZTASUNA HILABETE BAINO GEHIAGOKOA DUTEN ELEMENTUAK LANTALDE HORREK GARBITUKO DITU ETA HORIEK GARBITZEA JARDUERA HONEN BARNEAN DAGO. 43
5.2.3. LURZORUEN TRATAMENDUA. 43
5.2.4. GARBIKETA BEREZIAK 44
6. GARBIKETA PLANA 44
7. ALDIZKAKOTASUNEN PROPOSAMEN ORIENTAGARRIA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK 44
8. ZERBITZUAREN GARAPENA 45
8.1. PRINTZIPIOAK 45
8.1.1. OINARRI OPERATIBOAK 45
8.1.2. KOORDINAZIOA 45
8.2. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA 46
8.2.1. DOKUMENTAZIOAREN GAINEKO JABETZA 46
8.3. LANAK KUDEATZEA 46
8.3.1. LANEKO ATALAK 46
8.3.2. JARDUERARI BURUZKO HILEKO TXOSTENAK 47
8.3.3. LOKALAK UZTEA 47
8.3.4. SARTZEKO BAIMENA 47
8.3.5. IDENTIFIKAZIOA 47
8.4. BEHARREZKO MATERIALAK 47
8.5. BESTE LAN BATZUK 48
8.6. PRESTAZIOEN EDUKIA 48
9. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK 49
9.1. IZENDATUTAKO LANGILEAK 49
9.1.1. ESKAINI BEHARREKO GUTXIENEKO LANTALDEA 51
9.1.2. DOKUMENTAZIOA ETA LANGILEEN ALDAKETAK 51
9.1.3. GREBAK 52
9.1.4. KALTEAK KONPENTSATZEA 52
9.1.5. LANGILEEN ERRELEBOA 52
9.2. EKIPAMENDUAK, TRESNAK ETA BITARTEKO OSAGARRIAK 52
9.3. SEGURTASUNA ETA HIGIENEA 53
9.4. SEGURTASUN NEURRIAK
9.5. INGURUMENA BABESTEKO NEURRIAK
9.6. KOMUNIKAZIO SISTEMAK
9.7. UNIFORMEA
10. LAN ARLOKO HARREMANAK ETA BETEBEHARRAK
10.1. GASTU SOZIALAK, TRIBUTUAK ETA ZERGAK
10.2. ERREFERENTZIAZKO LAN-HITZARMENA BETETZEA.
10.3. LANALDIA

Baliozkotze Kod.: 5UHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gobierno-vasco.eus/sede/verifirma/code/5UHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
esPublico Gestiona Plantilla Herrimatik tekniko kontratuko pleguak 2025 | 2. orrialdea, guztira 95

11. ESKATUTAKO ASEGURU-KONTRATUAK 56
11.1. KULTUR ETXEA ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA 57
12. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK 57
13. KONTRATU-BETEBEHARRAK 57
13.1. ELEMENTU ETA EKIPAMENDUEKIKO ERANTZUKIZUNA. 58
13.2. KUDEAKETAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERANTZUKIZUNA. 58
13.3. ISTRIPUEN ETA KALTEEN ERANTZUKIZUNA. 58
14. LANAK ZAINTZEA 58
15. ZEHAPEN ARAUBIDEA 59
15.1. BESTE ARAU-HAUSTE BATZUK, ETA HAIEN SAILKAPENA 59
15.2. ARAU-HAUSTEEN ZEHAPENEN ZENBATEKOA. 60
16. EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA 61
17. LIZITAZIOAREN OINARRI PREZIOA 61
18. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA, KONTRATATZEKO GAITASUNA FROGATZEA. 62
19. KONTRATUAREN IRAUPENA 63
20. PRESTAZIOAK BERRIKUSTEA 63
21. AGIRI TEKNIKOAK AURKEZTEA 64
22. INSTALAZIOETARAKO BISITA 65
23. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK 65

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 35

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Pleguaren xedea da zehaztea zein baldintza tekniko berezik arautuko duten Muxikebarriko garbiketa osoa gauzatzeko adjudikatuko den zerbitzurako kontratua, zerbitzuaren kalitatea bermatuz.
Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak agiri honetan eta haren eranskinetan adierazitakoaren arabera egingo dira.
Plegu honen xede den zerbitzua ematearen helburu nagusia da eraikinaren garbiketa guztia egitea, kontuan izanda eraikinak hartuko dituen erabilera espezifikoak.
Garbiketako jarduketa guztiak une bakoitzean indarrean dagoen araudiarekin bat gauzatuko dira, eta adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da xedapen tekniko horiei erreparatzea eta horiek betetzea.

2. EREMU FISIKOA

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu erabateko garbiketa-lanak, honako elementu hauei dagokienez:

- Zoruak, hormak, sabaiak, ateak, leihoak, errezel-hormak (barnealdekoak), gortinak, altzariak, ekipamendu informatikoak, besaulkiak, jatorrian gaikako bilbetarako paperontziak, hautsontziak, argi-puntuak, eskudelak eta barandak, bainugelak, artxibategi gelak, kamerinoak eta abar, plegu honen apartatuekin bat.
- Espresuki barnean hartzen dira aurrealdeko edozein gunetatik eta azaletik pintaketak edo grafitiak kentzeko lanak, baita eraikinak izan ditzakeen kanpoaldeko seinale guztiak ere.
- Ondasun suntsikorrak aldian-aldian hornitzea.
- Garbitu beharreko lokaletan sortzen diren hondakinak gaika biltzea.
- Sortutako dokumentu konfidentzialak suntsitzea eta kentzea.
- Edukiontzi higieniko-sanitarioak jartzea eta sortutako hondakinak jasotzea.
- Komunetako gailu bakteriostatikoak betetzea eta mantentzea, hormetan zuloak egin gabe ezarriko direnak, hau da, itzatzita.

3. ESPAZIO-ESPARRUA

Kontratu honi dagokion espazio-esparrutzat Muxikebarriren instalazioak jotzen dira. Plegu honen **I. eranskinean** atxiki dira instalazio horiei dagozkien planoak.

- Gune eta espazio publikoetako barrualdeak, adibidez, harrerak, galeriak, ataria, korridoreak, eskailerak, patioak, aireztatzeko patioak, pasabideak, komunak eta kanpoko lorategia, garita eta kanpoko etxola.
- Areto nagusia eta erabilera anitzeko areto guztiak.
- Neurriz erabiltzen diren lokalak, adibidez, kamerinoak eta entsegu-gelak, biltegi mota guztiak, aldagelak, dutxak eta aldageletako komunak.
- Bereziki industrialak diren lokalak, adibidez, klimatizazio-ekipamenduen lokalak, argindarraren banaketa- eta transformazio-zentroak, talde elektrogenoen lokala, gasak banatzeko zentralak, igogailuen eta zama-jasogailuen zuloak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerakoak, arduradun eskudunak gainbegiratuta.
- Langileentzako erreserbatutako lokalak, korridoreak eta sarbideak, edo Muxikebarrik azpikontratatutako enpresenak, administrazio-bulegoak,

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 35

instalazio-gelaren ondoko espazioak, tailerren gunea, kontserbazio-gunea, mantenu-lokalak, segurtasun-gelak eta abar.

- Aparkatzeko solairua, -1 sotoa, garbitzea, sarbide-arranparen goiko hasieratik, dauden saretak eta burdin sareak barne, eta arranpa horren alboko hormak kenduta, zaintza-zerbitzuko garita, Muxikebarri erabiltzeko 1etik 4ra bitarteko garaje-plazak (irteerako arrapala igo aurretik, eskuinera), telefono azpiko lokala, ureztatze-gela eta plaza azpiko patioa/hustubidea.

Horrez gain, ulertzen da pleguaren jarduketa eremuaren barruan dagoela Etxeandia apezpikuaren kaletik sartzeko eskailerei dagokien azalera, bai eskailera mekanikoak bai ohiko eskailerak eta kanpoko harrera eta ateak. Espazio hori osatzen duten hormak ez dira barnean hartzen.
Esparruaren hegoaldeko kanpoko plaza, atariaren azpikoa, ere plegu honetatik eratorritako kontratuaren enpresa adjudikaziodunak garbitu beharko du.
Plegu honetatik kanpo geratzen dira Muxikebarriren aldameneko aparkaleku-plazak, salbu eta -1 sotoa; azken hori garbitu beharreko espazioen barruan dago.
Plegu honetatik eratorritako zerbitzuaren barnean egongo da –3 sotoaren patioa garbitzea, lurzatiaren hegoaldean dagoena. Garbiketa egitean bakarrik lurzorua garbitu beharko da.
Plegu honetatik kanpo gelditzen dira Musika Eskolari dagozkion lokalak, salbu eta hari esleitutako erabilera anitzeko gela; horrek plegu honetatik eratorritako zerbitzua jasoko du.

Eskaintzak aurkeztuko dituzten enpresek areto bakoitzean garbiketa sakonak egiteko maiztasunak kalkulatuko dituzte, horiek garbitasun eta osasungarritasun baldintza ezin hobeetan mantentzeko.

Eskaintzak egiten dituzten enpresek, proposamenak egiterakoan, kontuan hartuko dute balioetsitako garbiketa-metodoen egokitasuna, eta haiek egokiak direla fatxadaren akabera osatzen duten materialen ezaugarrientzat.

4. ARAUDIA

Enpresa mantentzaileak dagoen araudi guztia errespetatu beharko du eta, haien artean aipatu daitezke hurrengoak (azalpen gisa baino ez da zehazten, gerora arauen eguneraketa alde batera utzi gabe):

4.1. Estatuko araudia

31/1995 LEGEA, Lan arriskuak prebenitzekoa.

LAN MINISTERIOAREN AGINDUA, Lanerako Segurtasun eta Higienerako ordenantza orokorra.

485/1997 ERREGE DEKRETUA, Lantoki eta Lokaletako Segurtasun Seinaleei buruzko arauak.

486/1997 ERREGE DEKRETUA, Segurtasuna eta Osasuna Lantokietan.

487/1997 ERREGE DEKRETUA, Arriskuak eragiten dituen, zehazki bizkarraldean eta gerrialdean, kargen eskuzko manipulazioa.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 35

488/1997 ERREGE DEKRETUA, Bistaratzeko Pantailak dituzten Ekipoekin Egindako Lanak.

614/2001 ERREGE DEKRETUA, Arrisku Elektrikoaren aurrean Langileen Osasuna eta Segurtasuna Babesteko gutxieneko xedapenak.

286/2006 ERREGE DEKRETUA, Zaratarekin Lotutako Arriskuen aurrean Langileen Osasuna eta Segurtasuna babestekoa.

773/1997 ERREGE DEKRETUA, Langileek Babes Indibidualeko Ekipoak Erabiltzeko Gutxieneko Segurtasun eta Osasun xedapenak.
1215/1997 ERREGE DEKRETUA, Langileek Lan Ekipoak Erabiltzeko Gutxieneko Segurtasun eta Osasun xedapenak.

15/1999 LEGE ORGANIKOA, Datu Pertsonalak Babestekoa.

1720/2007 ERREGE DEKRETUA, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duena.

4.2. Autonomia erkidegoko araudia

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 LEGEA.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gebxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 35

II. KAPITULUA. GARBIKETA LANAK.

5. LANEN ZEHAZTAPENA

Garbiketa lanak honako bi kategoria hauetan sailkatuta daude:

- Aldizkako garbiketa lanak.
- Maiztasunez egin beharreko garbiketa lanak.

5.1. Aldizkako garbiketa lanak

Aldizkako garbiketa lanetan ezustekoak gertatzearen ondorioz egin beharreko garbiketak gauzatuko dira, besteak beste bandalismoagatik zerbait zikintzen denean, pintadak, grafitiak, pertsonaren bat gaizki sentitzea, elementuak apurtzea, suteak, etab.

Multzo horren barnean egongo dira baita ere azpikontratatutako enpresetako edo Kultur Etxeak kontratatutako enpresetako langileek instalakuntzak konpontzeko eta mantentzeko egindako lanen ondorengo garbiketa lanak.

Aldizkako garbiketa lanak deitzen dira horiek ezustean gertatzen diren jazoeren ondorioz egin beharrekoak direlako, eta premiaz eta berehala egin beharrekoak dira.

Jendaurrean irekitzeko ordutegiaren barnean garbitzaileak modu iraunkorrean egon beharko dira eraikinean, eta ezustekoak gertatzen badira laguntza emateko lanak ere gauzatuko dituzte. Horretarako, lizitatzaileek memoria teknikoan jarduketa horiek gauzatzeko modua azaldu beharko dute atal batean.

5.2. Maiztasunez egin beharreko garbiketa lanak

Maiztasunez egin beharreko garbiketa lanak Muxikebarri normaltasunez erabiltzearen ondoriozko lanak dira, eta eraikinaren mantentze lanen barnean daude.

Aldizkako beharrei erantzuna emateko programatutako ekintzak gauzatuko dira, eta horiek Muxikebarriren ustiapenaren barneko jarduera osatuko dute.

Maiztasunez egin beharreko garbiketa lanen multzoaren barnean azpimultzo hauek daude:

- Mantentze garbiketa.
- Garbiketa sakona.
- Lurzoruen tratamendua.
- Garbiketa bereziak

5.2.1. Mantentze garbiketa

Mantentze garbiketan egunero gauzatuko dira honako lanak:

- Zakarrontzi eta hautsontzi guztiak hustea.
- Ontziak jartzea zaborra gaika jasotzeko eta ondoren hiri edukiontzietara eraman ahal izateko.
- Barneko eta kanpoko eskailerak erratzarekin garbitzea eta lanbasa pasatzea.
- Lurzoru guztiak moparekin garbitzea.
- Eskaileretan, korridoreetan eta igogailuetan hautsak kentzea.
- Mekanismo mugikorretatik hautsa kentzea.
- Barneko eta kanpoko lurzoruak garbitzea zoru bakoitzarentzat egokiak diren materialekin.
- Lanpasak xurgatzea eta garbitzea.
- Alfonbrak eta moketak xurgatzea eta garbitzea.
- Aulkiak garbitzea, baita tapizeria, mahaiak, apalak, armairuak eta altzariak ere.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 35

- Argi puntuak eta ateen heldulekuak eta kristalak garbitzea.
- Material informatikoa produktu espezifikoekin garbitzea.
- Komunak, aldagelak eta kamerinoak garbitzea eta desinfektatzea.
- Emakumeen komunetan egoten diren edukiontzi higieniko-sanitarioak jartzea, mantentzea eta hustea.
- Komunetan usainak kentzeko sistema bat jartzea (gailu bakteriostatikoak, itsasita, hormetan zuloak egin gabe), mantentzea eta berriz betetzea.
- Armairuak, kabinak eta arropazaindegiak garbitzea.
- Bankuak eta eskubandak garbitzea.
- Igogailuen kabinak barrutik garbitzea, gidariak barne.
- Karga-jasogailua garbitzea, muntaiaren premien arabera
- Hustubideak eta saretak garbitzea.
- Barneko kristalak garbitzea,(fatxadakoak salbu) eta batez ere, barandak, trenkadak eta ateak baita , fatxadaren kanpoko kristalak eta ate nagusitik gertu daudenak ere.Bulegoak garbitzea.
- -1 sotoa erratzarekin garbitzea eta lanbasa pasatzea.
- Altzariak ordenatzea.
- Elementu suntsikorrak jartzea: komuneko papera, eskuak lehortzeko papera eta komun eta aldagela guztietako eskuilak eta xaboiak.
- Pezoia, pezoi aurrekoa eta agertokia garbitzea.
- Sukaldaritza guneak, barra eta harraskak garbitzea.
- Hormetan geratzen diren markak garbitzea, kontuan hartuta Kultur Etxeak onetsitako produktu eta material egokiak.
- Aurretiaz eskaera eginda, dokumentu konfidentzialak deuseztatzea eta kudeatzaile baimendunak birziklatzea, horretarako ziurtagiria aurkeztuz.

Instalatu beharreko birziklatze ontziak eta horien kokapena lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzan jaso beharko dira. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- Gutxienez, horrelako ontziak jarriko dira bulegoetan, kamerino-guneetako korridoreetan eta auditoriumera eta erabilera anitzeko bi aretoetara sartzeko guneetatik gertu.
- Haien ezaugarriei dagokienez, erraz erabili eta manipulatu beharko dira, arlo horretako araudiak errespetatuz eta, batez ere, kanpoko itxura eraikinaren estetikarekin eta erabilerarekin bat etorriz.
- Zabor-ontzi estrak aurreikusi beharko dira catering-a dagoenean.

5.2.2. Garbiketa sakona

Garbiketa sakona aldizkako zikloen arabera gauzatzen da. Lortu nahi dena da Muxikebarri garbi-garbi egotea, lan hauen ondoren inongo zikinkeriarik ez hautemateko moduan.

Jarraian lanen zerrenda egin da, areto guztien garbiketa sakonean beti egin beharreko lanena hain zuzen ere. Zerrenda orientagarria da, ez da zehatza:

- Sarbideak, ateak, pertsianak eta igogailuak garbitzea.
- Horma tapizatuak eskuz garbitzea.
- Elementu adierazleak garbitzea (seinaleak).
- Sabaietan jarritako instalazioak garbitzea (Hautsa airez kentzea/kableatuak xurgatzea, hodiak eta hodiak garbitzea, etab.) Ez xaboitu hormak espartzuarekin.
- Kabinen beirak, barandak, leihoak eta abar garbitzea.
- Sarrerako ateak, iltzatuak eta beirateak garbitzea.
- Sarbideetako, harreretako eta abarretako zoruak garbitzea eta kanpoaldeko zoruak sakon garbitzea 0 solairuko eta -1 solairuko sarrerako ateetan;

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 35

horren barruan, eremua desinfektatu daiteke egoerak hala eskatzen duenean.

- Terrazen garbiketa
- Eskailerak garbitzea.
- Barandak eta eskubandak garbitzea.
- Goian dauden eremuak eta iristeko zailak diren lekuak garbitzea.
- Erradiadoreak baldin badaude, horiek garbitzea.
- Komunak eta aldagelak, tresna sanitarioak, sabai eta hormak, zoruak, armairuak, jantzitegiak eta altzariak garbitzea.
- Zakarrontziak, hautsontziak, aterki ontziak eta esekitokiak garbitzea.
- Altzairu herdoilezina garbitzea.
- Metalak garbitzea eta distira ematea.
- Argiak eta pareta argiak garbitzea.
- Koadroak eta dekorazio elementuak garbitzea.
- Moldurak, erlaitzak eta barruko hormak garbitzea.
- Areto guztietako gortinak eta oihalak garbitzea.
- Gortinak baldin badaude, horiek garbitzea.
- Landare naturalak eta artifizialak garbitzea.
-
- Intsektu txikiak oinarrizko moduan kentzea (desintsektazioa).
- Arreta ematea izurriteak kontrolatzeko eta edukiontziak eta alfonbrak garbitzeko enpresei.
- Sabaiak, barruko hormak, apaingarriak, altuera handiko elementuak eta abar barne hartzen dituzten altuerako garbiketak, eskatuz gero, soinu eta argiztapeneko egitura eta ekipoen hautsa kentzea barne har dezake arduradun eskudunak gainbegiratuta.
- Atariaren azken solairuan dagoen kristalezko sabaia bi aldeetatik garbitzea; ahal dela, lan bertikalen bidez egingo da, eta beste garbiketa-sistema batzuekin osatu ahal izango da (robotika, pertikak, etab.).
- Garajeko ur-kanala garbitzea.
-

Garbiketa fitxetan jasotako maiztasuna hilabete baino gehiagokoa duten elementuak lantalde horrek garbituko ditu eta horiek garbitzea jarduera honen barnean dago.

5.2.3. Lurzoruen tratamendua.

Zoruak garbitzeak berebiziko garrantzia du. Garbiketan duen eragina handia da, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Alde batetik, zikintzeko joera handiena duen azalera da, eta, bestetik, eragin handiena du garbitasun-sentsazioan.
Zoladura orokorra, fintasun handiagokoa, egurrezko tarima da, Tarkett markakoa, Oak Black Plank modeloa.
Fabrikatzailearen fitxa teknikoak dio eguneko zaintzarako nahikoa dela lur hori xurgatzea eta mopa lehor batez edo mikrozuntzezko oihal batez garbitzea.
Sakonago garbitzeko, apur bat hezea dagoen oihal bat erabili daiteke; dena den, ura, oro har, ez da gomendagarria.
Amoniakorik gabeko detergente sintetiko leunak bakarrik erabili daitezke, ez beste inolako detergenterik.
Tarkett fabrikatzaileak Refresher eta Bioclean produktuak ditu, lan horretarako egokiak; nolanahi ere, lizitatzaileentzako adibide moduan aipatu dira, beste marka batzuen produktu baliokideak erabili baitaitezke, noski.
Refresher gamarekin garbitu egiten da, akabera babeslea mantentzen da, eta zorua horitu dadin saihesten da.
Debekatuta dago zoladura nagusian argizariak erabiltzea.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 35

Orbanak kentzeko: Oro har, lehortu edo gogortu aurretik kendu beharko dira, eta gero ondo xukatutako oihal batez garbitu beharko da ingurua.
Debekatuta dago zoladura nagusian azetona erabiltzea.
Hona hemen hainbat orban motaren zerrenda bat, Tarkett fabrikatzaileak gomendatutako aukerekin:

Orban mota	Honekin kendu
Frutak, baiak, zukuak, freskagarriak, garagardoa, ardoa, esnea, krema, kafea, tea	Amoniakorik gabeko detergente sintetiko leuna, ur epelean
Txokolatea, koipea, krema irabiatua, goma markak, olioa, mundruna, asfaltoa	Detergente disoluzioa
Tinta, errotulagailuak, txantiloiak, beltzuneak, pintura, klera	Alkohol desnaturalizatua
Gernua eta oka	Amoniakorik gabeko detergente sintetiko leuna, ur epelean
Odola	Ur hotza

Dena den, lizitatzaileek garbiketa-planean beren proposamena aurkeztuko dute, eta ez du zertan izan hemen zerrendatutakoa bezalakoa. Dena den, erabilitako produktuek, teknikek, tresnek edo makineriak ezingo dituzte materialak kaltetu, eta ezingo dituzte kaltetu garbitasunaren helburua eta itxura garbiarena.

5.2.4. Garbiketa bereziak

Garbiketa bereziak aretoak (areto nagusia, erabilera anitzeko gelak, aldagelak, kamerinoak, etab) jarduera baterako (hitzaldiak, ekimenak, opera, kontzertuak, zinea, etab) erabili aurretik eta ondoren gauzatuko diren lanak dira.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko baliabideak erabili beharko ditu horiek garbitzeko eta Muxikebarriko zuzendaritzak une bakoitzean zehaztutako ordutegiak bete beharko ditu zerbitzuak kostu gehigarririk gabe egokitzeko.

Gainera, ekitaldietan zaintza talde bat egongo da, ekimenean zehar gertatu daitezkeen egoerei erantzuna emateko.

Era berean, garbiketa berezitzat hartuko dira ondoz ondo egiten diren jardueren artean egin beharrekoak, hala nola egun bereko bi zinema-saioen artean.

Covid-19rekin edo antzekoekin zerikusia duten kontuetatik eratorritako garbiketa bereziei ere erantzungo zaie, eta egoera horietarako eskaintzan plan berezi bat aurkeztu beharko da.

6. GARBIKETA PLANA

Enpresa adjudikaziodunak GARBIKETA PLAN bat aurkeztuko du. Bertan jasoko dira garbiketarako erabili beharreko metodoak, prozedurak, makina motak eta garbitzeko produktuak, eskaintzan baloratu direnak. Bertan, gainera, zerbitzuaren ezaugarri guztiak egongo dira jasota, bai erabili beharreko materialena bai langileena.

Garbiketa plana ez badago eskaintzan jasota, lizitazio honetatik kanpo geratuko da.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gebo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 35

7. ALDIZKAKOTASUNEN PROPOSAMEN ORIENTAGARRIA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Hauek dira modu orientagarrian ezarritako maiztasunak eta garbiketa arauak, espazioak garbi mantentzeko:

Egin beharreko lanak	Maiztasuna
Areto nagusia garbitzea	Egunero
Erabilera anitzeko aretoak garbitzea	Egunero
Kamerinoak garbitzea (komunak, dutxak, korridoreak eta eskailerak barne)	Egunero
Agertokiak garbitzea	Astero
Korridoreak, ataria eta atondoa garbitzea	Egunero
Bulegoak garbitzea	Egunero
Sarrera ateetako kristalak garbitzea	Egunero
-1 sotoa garbitzea	Egunero
Barneko kristalak garbitzea	Hilero
Igogailuak garbitzea	Egunero
Zakarrontzia gaika jasotzea	Egunero
Estalkia garbitzea	Hilero

Espazio guztiak erabiltzaileak iritsi baino gutxienez ordubete aurretik garbi egon beharko dira.
Erabilitako aretoak erabili ondoren garbitu beharko dira edo hurrengo eguneko lehenengo orduetan garbi egon beharko dira.
Instalakuntzak gehiago ezagutzeko, **I. eranskinean** oinplanoen plano orokorrak jasota daude.
Hala ere, Muxikebarriko instalazioak modu egokian ezagutzeko, gomendagarria da lizitazioan parte hartu nahi duten enpresek instalazio horietara bisita egitea.

8. ZERBITZUAREN GARAPENA

8.1. Printzipioak

8.1.1. Oinarri operatiboak

Plegu honetatik eratorritako kontratuko oinarri operatiboak dira plegu honen xedea betetzeko kontuan hartu beharrekoak, eta eraginkortasun frogatua duten aurreikuspen, zuzenketa eta kudeaketa prozeduretan oinarrituta egon behar dira, proposatutako garbiketa-planean, Kultur Etxeko teknikariek onartu beharko dutenean, ezarritako helburuak lortzeko.
Horri dagokionez, lizitatzaileek beraien gain hartuko dute beren eskaintzan garbiketaren kudeaketa orokorraren metodologia sartzearen erantzukizuna.
Kontratu honetatik eratortzen diren lanen zailtasuna kontuan hartuta, kobragarritasunaren printzipioa ezartzen da, beharrezko gisa. Hortaz, Garbiketa Plana ezarri eta burutu bitartean, Kultur Etxeko langileek horren egokitasuna egiaztatuko dute. Horretarako, egiten diren jarduketen irizpideak, maiztasunak, izaera, sistematika edo metodologia, baita instalazioen mantentze egoera eta garbitasuna, ustiapena edo ematen den zerbitzua eta energia-eraginkortasuna hobe dezakeen beste edozein alderdi ere, aztertuko dituzte.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 35

8.1.2. Koordinazioa

Helburu horiek betetzeko eta eskatutako prestazioak egiteko, beharrezkotzat jo da enpresa adjudikaziodunaren eta Kultur Etxeko teknikarien arteko elkarlana, etengabekoa eta estua.

Kultur Etxearen eta garbiketa kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren arteko harremanak koordinatzeko enpresa adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, eta hari eskuordetuko zaio kontratuaren adjudikazioan eskuratutako kontratu erantzukizuna. Hauek izango dira bete beharreko eginkizunak:

- Kultur Etxearen zerbitzu teknikoen bitartez adierazten zaizkion jarraibideak eta lanak garatzea, enpresa adjudikaziodunak eskainitako egitura osatzen duten baliabideak koordinatuz.
- Kontratu honen ondorioz behar diren txostenak, fakturak, planoak eta gainerako agiriak Kultur Etxearen zerbitzu teknikoei aurkeztea.
- Kultur Etxearen zerbitzu teknikoei antolaketaren, langileen eta/edo zerbitzuen aldaketak proposatzea. Beti eskatuko dira Kultur Etxearen zerbitzu tekniko horien onarpena eta oniritzia.
- Eguneroko harremanak izatea Kultur Etxearen arduradun teknikoekin.
- Garbiketa kontratua garatzeko izendatutako taldearen lanak gainbegiratzea.

Enpresa adjudikaziodunak izendatutako ordezkaria derrigorrez joan beharko da Kultur Etxearen teknikariekin koordinazioa gauzatzeko asteroko bileretara.

Nahiz eta normalean eskariak, jarraibideak eta informazioa ahoz helaraziko diren Kultur Etxearen teknikarien eta garbiketa taldearen ordezkariaren artean, “Zerbitzuaren jarraibideen eta intzidentzien liburua” ezarri da, bereziki garrantzitsuak edo arduratsuak diren lanak bertan jasota geratzeko. Hala, dokumentatu egin beharko dira eta jasotze agiriaren data ezarri beharko da. Liburu hori enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak kontratua egikaritzean gauzatuko diren koordinazio bilera guztietara eraman beharko du.

Kultur Etxeak enpresa adjudikaziodunaren aurrean jarduteko kontratuaren ordezkari bat izendatuko du administrazioko eta enpresa adjudikaziodunaren arteko koordinazio lanak gauzatzeko, eta modu horretan, koordinazioa eta komunikazioa errazagoak eta eraginkorragoak izango dira.

Larrialdietarako telefonoa emango da (24 ordu).

8.2. Dokumentazio teknikoa

Enpresa adjudikaziodunak egunean izan beharko du jarraian zerrendatutako dokumentazio teknikoa:

- Zerbitzuaren jarraibideen eta intzidentzien liburua.
- Eraikinean erabilitako garbitzeko makineriaren dokumentazio tekniko ofiziala.
- Une oro lan-arriskuak prebenitzeko araudi espezifikoa betetzeko beharrezko dokumentazioa.
- Kontratuari esleitutako betebehar fiskalak, laboralak eta langileen kontratazioaren ingurukoak egiaztatzeko dokumentazioa.

8.2.1. Dokumentazioaren gaineko jabetza

Plegu honetatik eratorritako kontratua betetzearen ondorioz sortutako dokumentazio guztia Kultur Etxearen jabetzakoa izango da, eta, horrela, haren zerbitzu teknikoen eskura egongo da etengabe.

Dokumentazio horretan jasota egongo dira langileen lan-kontratuak eta haien Gizarte Segurantzako altak.

8.3. Lanak kudeatzea

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 35

Lanak enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako Garbiketa Planarekin bat garatuko dira.

8.3.1. Laneko atalak

Gauzatzen den garbiketa lan bakoitzaren partea beteko da. Parte horretan honakoak adieraziko dira:

- Egindako lanen deskribapena.
- Eguna, ordua, lekua (non egin den lana).
- Garbitutako elementuen zerrenda.
- Laneko denbora.
- Lanak egin dituzten langileak.
- Beharrezko aipamenak.

Parte bat ez bada entregatzen edo osorik ez bada ematen partea eta justifikatu nahi diren lanak baliogabetzat hartuko dira.
Enpresa lizitatzaileek eskaintzaren barnean aurkeztuko dute laneko parteen eredu bat. Hala, eredu hori erabiliko da adjudikaziodunak kontratua garatuko duen aldian zehar.

8.3.2. Jarduerari buruzko hileko txostenak

Enpresa adjudikaziodunak, hileko lehen 10 egunetan, aurreko hilean eginiko lanak laburbiltzen dituen txosten teknikoa egingo du, eta bertan azalduko dira eginiko garbiketa lanak, egindako ekintzen atalak barne, eta zerbitzuan egondako gorabeherak adieraziko dira, horrelakorik egonez gero.

8.3.3. Lokalak uztea

Kultur Etxeak lokal batzuk adjudikaziodunaren eskura jarriko ditu, nahikoa handiak, urez eta energiaz hornituak, garbiketa lanak garatu ahal izateko. Era berean, garbitzaileentzako armairuak edo aldagelak jarriko dira. Dena den, adjudikaziodunak ez du eskubiderik eskuratuko haien inguruan, eta haietatik irten beharko da ezarritako kontratu harremana amaitutzat jotzen den egun berean.

8.3.4. Sartzeko baimena

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren indarraldian baimena izango du kontratuaren xede diren instalazio guztietara sartzeko; horregatik, ordea, ez du haien gainean eskubiderik eskuratuko. Kultur Etxearen teknikariek, beharrezkoa balitz, sarbide horren inguruko arauak ezarri ahal izango dituzte, eta, edozein kasutan, enpresa adjudikaziodunak bete egin beharko ditu identifikatze baldintzak eta baldintza orokorrak, Muxikebarriko segurtasunak eskatutakoak.
Instalazioetara sartzeko enpresa adjudikaziodunak duen baimena zerbitzuari atxikitako haren langileentzat da soilik, eta ezingo zaio beste pertsona bati ere eman. Horrek esan nahi du baimen horrekin enpresa adjudikaziodunak ezingo diola Muxikebarrira sartzeko baimenik eman kontratua betetzeko izendatutako taldearen parte ez den inori. Lanen ondorioz, pertsona gehiago sartzea behar balu, teknikari arduradunari jakinarazi beharko dio, sarrera baino bi egun lehenago gutxienez, eta haren baimena jaso beharko du.

8.3.5. Identifikazioa

Garbiketa taldeko langileak identifikatzeko enpresa lizitatzaileek lizitazio fasean identifikazio txartel baten proposamena egingo dute, ezaugarri hauek izango dituena hain zuzen ere:

- Langilearen argazkia.
- Enpresa adjudikaziodunaren logotipoa eta izena.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 35

- Azpikontratatutako enpresaren logotipoa eta izena, horrelakorik egonez gero.
- Langilearen izen-abizenak.
- Hala, txartelak garbiketa taldeko langileek eraman beharko dituzte eta ikusgarri egon beharko dira.

Muxikebarriko garbiketa lantaldea osatzen duten pertsona guztiek identifikazio txartel hori eraman beharko dute instalazioetan lanean ari diren une guztietan.

8.4. Beharrezko materialak

Produktu suntsikorrentzat joko dira garbiketa-prozesuetan erabiltzen diren guztiak, etengabe birjarri behar direnak. Adibidez, zati metalikoak garbitzeko produktuak, kristalak garbitzeko produktuak, garbitzeko trapuak, zabor-poltsak, erratzak, lixiba, aire-gozagarria, komunetako edo iturrietako buxadurak desegiteko produktuak, argizariak, azal edo larruarentzako krema hidratatzaileak eta abar.
Enpresa adjudikaziodunak kontrolatuko eta zainduko du produktu suntsigarrien biltegia eta garbiketa-prozesuan erabiltzen direnen kontsumoa eta, hala badagokio, stock-maila kontrolatu beharko du. Horrela, horiek birjartzeko eta une oro haien stocka egotearen erantzukizuna zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunaren gain egongo da.
Produktu suntsigarri guztien hornidura enpresa adjudikaziodunaren kargu joango da, salbu eta energia elektrikoarena.

8.5. Beste lan batzuk

Horrez gain, kontratu honen xede den garbiketa-zerbitzuak honako zeregin hauek jasoko ditu:

- Eraikineko argiak piztea eta itzaltzea.
- Garbitzeko materiala zaintzea eta ordenatuta izatea.
- Anbulantziari, suhiltzaileei edo poliziari jakinaraztea haien zerbitzuen beharra dakarren egoeraren bat badago.

8.6. Prestazioen edukia

Kontratatu nahi diren prestazioak dagokion epigrafean azaldutakoak dira eta honako zehaztapenak bete beharko dituzte:

a) Gutxienekoak dira, eta, horrenbestez, aldeek hobetu eta/edo perfekzionatu egin ditzakete.
b) Prestazio guztiak edo zati bat kontratuaren Kultur Etxearen organo arduradunaren erabakiz bete daitezke.
c) Kontratuaren Kultur Etxearen organo arduradunak egokitzat jotzen badu, lanak adjudikatutakoan, emate partzialak egingo dira.
d) Deskribatutako lanek barruan hartuko dute indarrean dagoen araudia betetzeko beharrezko dokumentazio guztia aurkeztea, baita instalazioa erabiltzeko beharrezko baimenak, lizentziak eta baimenak eskatzekoa ere.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 35

III. KAPITULUA. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHAR OROKORRAK.

9. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Matxuren konponketa eta mantentze lanen zerbitzuak eskaintzeko, beharrezkoak diren bitarteko materialak izan behar dira, hala nola ibilgailuak, tresnak, neurketa ekipoak, elementu mugikorrak, eta abar. Era berean, zerbitzua ahalik eta ondoen garatzeko eta lanean segurtasuna nahiz osasuna izateko, profesionalki langile prestatuak, osagarri pertsonalekin (jantzia, segurtasun-ekipoak, eta abar), beharko dira. Nolanahi ere, jarduera mota honetarako lanean higiene eta osasunari buruzko ordenantzak eta indarreko legeriak nahiz lan-hitzarmenek xedatutakoa bete beharko da.

Halaber, ezinbestekoa da enpresa adjudikaziodunaren antolamendua egokia izatea kontratatutako lanerako eta gauza izatea kontratuaren ondorioz sortzen diren beharrizanei erantzuteko.

Aurrekoa betetzea adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da oso-osorik eta, ez badu betetzen, Kultur Etxeak zehapenak jarri ahal izango ditu.

Zerbitzuak pleguan zehaztutako zereginak behar bezala betetzen dituela bermatzeko, enpresa adjudikaziodunak plegu honetan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta bitarteko materialak izango ditu, eta eskaintzan zehaztuko ditu.

Bitarteko eskuragarri guztiak eskaintzan zehaztuko dira.

9.1. Izendatutako langileak

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren garbiketa-zerbitzuak arrazionaltasunez emateko eta antolatzeko gutxieneko langileak izango ditu, eta pleguko eskakizunak betetzeko prestakuntza egokia izango dute. Ildo horri jarraikiz, kaudimenez onartuko dituzte ordainsari, pizgarri, gizarte karga eta gainerako obligazio guztiak; gainera, une bakoitzean indarrean dagoen legeria eta hitzarmenak beteko dituzte, eta Kultur Etxea enpresa adjudikaziodunaren eta langileen arteko harremanei buruzko erantzukizun guztiaz salbuetsita egongo da.

Plegu honetatik eratorritako kontratuaren xede den zerbitzua emango duten langile guztiak enpresa adjudikaziodunaren parte izango dira soilik, eta ez da inongo lotura juridikorik egongo, ez administratiborik ez laboralik, langile horien eta Kultur Etxearen artean, ez kontratuaren indarraldian ez hura amaitu eta geroko inongo uneetan.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko azpiegitura izan beharko du honakoak gauzatzeko: administrazio-betekizunak, erosketak, kobrantzak, ordainketak, fakturazioak, parteak, eta abar. Halaber, bere langileek behar dituzten lanak egiteko bulego teknikoa edukiko du.

Bulego teknikoak nahikoa gaitasuna izango du Kultur Etxearen instalazio guztien dokumentazio teknikoa kudeatzeko.

Enpresa adjudikaziodunak eskainitako langileen oporraldiak eta bajak ordezkatuko ditu, kostu osagarririk gabe.

Aurkeztutako eskaintzaren barruan, beharrezkoa izango da idatz-zati honetan adierazitakoaren araberako organigrama bat eranstea, eta, bertan, aipatutako lanpostuak beteko dituzten pertsonen zerrenda bat (izenik gabe) jaso beharko da. Lanpostuak beteko dituzten pertsonen organigrama gehitzen ez bada, edo han adierazitako figurak aldatzen badira, lizitatzailea automatikoki baztertuta geratuko da.

Organigrama horretan, adjudikaziodunak kontratu honen barneko langileen euskara maila zehaztu ahal izango du.

Goian aipatutako organigrama aurkeztu eta esleipena egin ondoren, lanpostuak beteko dituzten pertsonen izen-abizenak emango dira ezagutzera. Proposatutako pertsonak geroago aldatzeko, idatzizko proposamena aurkeztu beharko da Kultur Etxearen zerbitzu teknikoetan eta zerbitzu teknikoek onartu beharko dute

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 35

proposamena. Kultur Etxeak, bere ordezkari teknikoaren bidez, pertsona horren ordezkapena ukatu dezake. Betekizun hori ez betetzeak kontratua ez betetzea ekarriko du eta dagozkion zehapenak eragingo ditu.
Kultur Etxeak, bere teknikari ordezkariaren bitartez, eskubidea du zerbitzuari esleitutako edozein pertsona ordeztu dadin eskatzeko, haren iritziz ez badu gaitasunik bere funtzioak betetzeko, eta, garbiketa mailari buruzko kexak baldin badaude edo garbitzaileei egotzi ahal zaizkien gorabeherak gertatuz gero.
Ondorioz, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du zerbitzutik kentzeko bertan esleitutako eta beren lana modu desegokian eta gaitasun tekniko eta eraginkortasun nahikorik gabe egiten duten langileak, edo beren lanak egitean arreta gutxi jartzen dutenak.
Kultur Etxeak ez dio kontratu honen adjudikaziodunari bere langilerik lagako kontratuaren xede diren lanak egiteko.
Adjudikazioduna arduratu beharko da lanak egingo dituzten langileek beharrezko baliabide teknikoak dituztela eta horiek behar bezala identifikatuta daudela zaintzeaz.
Plantillan egongo diren gutxieneko langileez gain, lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren ofizio espezializatuetarako langileak kontratatuko dira.
Nolanahi ere, lanak egikaritzeko orduan, enpresa adjudikaziodunak ezin izango du atzerapen edo huts-arrazoi bezala alegatu plegu honek gutxienez eskatzen dituen langileak nahikoak ez direla.
Kontratu honen xede diren lanak betetzeko, adjudikaziodunak bere langileak erabili beharko ditu. Horrez gain, enpresa adjudikaziodunak enpresa espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu lan puntualetarako; dena den, egoera hori Kultur Etxearen teknikari arduradunaren aurrean justifikatu beharko da.
Azpikontrataziorik badago, azpikontratazio hori Kultur Etxearen teknikari arduradunak baimendu beharko du, eta Kultur Etxeak eskubidea du dokumentu administratibo, tekniko, kurrikular, laboral edo segurtasun arlokoen justifikazioa eskatzeko, egoki baderitzo, garatu beharreko lanaren inguruan.
Azpikontratatutako enpresak beren-beregi ezagutu eta onartu beharko ditu plegu honetan eta enpresa adjudikaziodunaren eta Kultur Etxearen artean sinatutako gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintzak .
Edonola ere, erabilitako bitartekoen kostua eta haien gaineko eta haien jarduketen erantzukizuna enpresa adjudikaziodunarena izango da, edozein dela ere haien jatorria, bere langileek egin izan balute bezala.

Mantentze-lanetan arituko diren gutxieneko langileak ondoren adierazitakoak dira:

ORDEZKARIA: Enpresa adjudikaziodunak izendatutako pertsona bat izango da mantentze-lanetarako kontratua adjudikatzeagatik hartutako kontratuaren erantzukizuna hartuko duena. Hauek izango dira bete beharreko eginkizunak:

- Garbiketan 8 urteko esperientzia izango du, gutxienez.
- Lanak zuzentzeko, planifikatzeko eta koordinatzeko arduraduna izango da.
- Kultur Etxearen teknikoen bitartez adierazten zaizkion jarraibideak eta lanak garatzea, enpresa adjudikaziodunak eskainitako egitura osatzen duten baliabideak koordinatuz.
- Plegu honetako kontratua egikaritzeko guztizko dedikazioa izango du, eta Muxikebarrin bertan lan egingo du. Enpresa adjudikaziodunak ordezkariak izendatuko ditu ordezko lanak egiteko hura ez dagoenean, eta taldearen lanaldi osoa hartuko dute bere gain. Ordezkoek maila baliokidea izango dute.
- Kultur Etxearen zerbitzu teknikoei beharrezko dokumentazio guztia ematea beste erakunde batzuen aurrean egin behar diren

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 35

kudeaketak egiteko, baimenak, instalazioko buletinak eta abar lortzeko.

- Kontratu honen ondorioz behar diren txostenak, fakturak, planoak eta gainerako agiriak Kultur Etxearen zerbitzu teknikoei aurkeztea.
- Kultur Etxearen zerbitzu teknikoei antolaketaren, langileen eta/edo zerbitzuen aldaketak proposatzea. Beti eskatuko dira Kultur Etxearen zerbitzu tekniko horien onarpena eta oniritzia.
- Kultur Etxearen arduradun teknikoekin komunikazioa eduki behar du egunero.

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK: Segurtasun- eta higiene-arloko arduraduna izango da, eta lanak egiten dituztenean langileen segurtasun-neurriak betetzen dituztela egiaztatuko du.

Garbitzeko lanak egiteko ohiko lanaldi moduan ezarri da 06:00etatik 22:00etarakoa, astelehenetik igandera, eta garbiketa-lanak tarte horretan egin beharko dira, bestelakorik justifikatzen ez bada eta Kultur Etxeak izendatutako teknikari arduradunak berariaz baimena ematen ez badu. Behin betiko lanaldia garbiketa-planean zehaztuko da.

Lanerako ohiko alditik kanpo eraikinean jardueraren bat gauzatu behar bada edo larrialdiren bat baldin badago, enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak Kultur Etxearen teknikariarekin batera zehaztuko du bertan egon beharreko gutxieneko langile kopurua; hala, langile horiek enpresaren ordezkariak edo bere ordezkoak adierazitakoak beteko dituzte.
Ohikoa ez den zerbitzu horrek ez du gainpreziorik sortuko, eta hala, eskaintzaren barnean hartuta egon beharko da.
Larrialdia edo matxura larria denean, enpresa adjudikaziodunak larrialdi horretan berehala laguntzeko eta konpontzeko beharrezko plantilla jarri beharko du Muxikebarrirentzako eskuragarri, betiere kontratazioko aurrekonturako kargu gehigarririk izan gabe, eta Kultur Etxearen teknikariak enpresa adjudikaziodunaren teknikari arduradunaren presentzia exijitu ahal izango du, ohiko lanalditik kanpora bada ere. Hori dela-eta, teknikariak edo ordezkoak eguneko edo gaueko edozein ordutan egon beharko du eskuragarri.

9.1.1. Eskaini beharreko gutxieneko lantaldea

Lizitatzaileak kontratua egikaritzeko erabiliko duen metodologiari buruzko memoriak jaso beharko du zein langile jotzen dituen beharrezkotzat zerbitzua modu egokian emateko.
Garbitasuna mantentzeko aldizkako garbiketa-lanen atalean proposamena aurkeztu nahi izanez gero, lizitatzaileak II. eranskina bete eta aurkeztu beharko du.
Era berean, memoria horretan justifikatuta egon beharko dira eman beharreko zerbitzuekin lotutako langileak.

9.1.2. Dokumentazioa eta langileen aldaketak

Garbitzeko edozein makineria maneiatzeko ardura duten langileek egiaztatuko dute prestakuntza jaso dutela hura maneiatzeko, eta enpresak Kultur Etxeak ezarritako kontratuaren teknikari arduradunari dokumentazio hori helarazi beharko dio.
Plegu honen 9.1 puntuan adierazitakoa galarazi gabe, langileak aldatzeari dagokionez, enpresa adjudikaziodunaren erabakiz edo haren beharren ondorioz egindako langileen edozein aldaketa jakinarazi egingo da, baita onartu ere, Kultur Etxeak izendatutako teknikariarekin. Ordezkoaren gaitasuna eta trebezia baloratuko dira.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 35

Adjudikaziodunak Muxikebarrin zerbitzua emango duten langileen Gizarte Segurantzako altaren egoeraren inguruko dokumentazioa bidali beharko du hilero.

9.1.3. Grebak

Aurretik lan-uzteak izango direla jakinez gero, indarreko araudiaren araberako gutxieneko zerbitzuak nahikoa denbora lehenago negoziatzea hitzartzen du enpresa adjudikaziodunak.
Grebak egiten direnean, itundutako gutxieneko zerbitzuei dagokien zatia ordainduko da soil-soilik.
Gutxieneko zerbitzu horiek guztiz edo modu partzialean betetzen ez baldin badira, Kultur Etxeak enpresa adjudikaziodunari Muxikebarri garbiketa zerbitzurik gabe egon deneko denborari dagokion zenbatekoaren zati proportzionala ez ordaintzeko eskubidea izango du, eta hala badagokio, plegu hauetan adierazitako zehapenak ezarri ahal izango ditu.
Enpresa adjudikaziodunak greba bukatzean garbiketa bereziko programak antolatuko ditu eperik laburrenean ohiko garbiketa egoera berreskuratzeko, baina administrazio kontratatzaileak ez ditu ordainduko.

9.1.4. Kalteak konpentsatzea

Enpresa adjudikaziodunak erabilitako langileek, berezkoek edo azpikontratatutakoek, lokaletan, altzarietan, instalazioetan edo Kultur Etxearen edo haren erakunde autonomoen edozein jabetzatan zabarkeriagatik, gaitasun ezagatik edo doluz eragin ditzaketen kalteak enpresa adjudikaziodun horrek ordaindu beharko ditu.
Hura izango da, gainera, Muxikebarriko esparruan, edozein material, balio edo objekturen lapurretaren erantzule subsidiarioa, haren langileek egin dutela frogatuz gero.

9.1.5. Langileen erreleboa

Garbiketa-lanetara atxikitako langileek behar bezala, gaitasun tekniko egokiaz eta eraginkortasunez jarduten ez dutenean, edo haien lana behar besteko kontuarekin egiten ez badute, Kultur Etxeak izendatutako teknikariak berekin gordetzen du eskubide hau: baldintza horiek betetzen dituen langilea edo azpikontratatutakoa aldatu dezala eskatzea enpresa adjudikaziodunari.

9.2. Ekipamenduak, tresnak eta bitarteko osagarriak

Adjudikaziodunak baldintza plegu honetan zehaztutako eskakizunak betetzeko material egokia izan beharko du, bai ekipoak, bai erremintak eta ibilgailuak, baita jarduera profesionala bermatzen duten lokalak eta azpiegitura ere.
Aipatutako mantentze-lanei atxikitako langileek lanak egiteko erreminta eta tresna guztiak izan beharko dituzte. Enpresa adjudikaziodunaren konturakoa izango da horiek hornitzea, eta Kultur Etxeari ez dio kostu osagarririk eragingo.
Ekipamenduak homologatuta egongo dira, eta indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
Ekipamendu guztiak egiaztatuta egongo dira une oro, eta kontserbazio-egoera egokian mantendu beharko dira. Beharrezkoa izango da horiek ordeztea baldintzak betetzen ez badituzte. Material horiek guztiak enpresa adjudikaziodunak ordeztu beharko ditu.
Tresnak eta gainerako bitarteko materialak nahikoak eta kalitatezkoak izango dira, gauzatzen den lanbideko eskakizun zehatzak betetzeko.
Enpresa adjudikaziodunak izango ditu zerbitzua modu egokian garatzeko behar dituen beharrezko ibilgailu guztiak.
Garraio-elementuetan matxuraren bat gertatzen bada, ezaugarri bereko beste batzuk jarriko dituzte, kosturik gabe.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 35

Erregai-gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.
Enpresa adjudikaziodunak langileei emango die berehala aurkitzeko interkomunikazio sistema egoki bat.
Horrez gain, lanak garatzeko bitarteko osagarriak ere eskuragarri jarri beharko ditu, hala nola aldamioak, eskailerak, arnesak, sokak, seinaleztapena eta segurtasun neurriak, eta abar.

9.3. Segurtasuna eta higienea

Adjudikaziodunak segurtasunaren eta higienearen arloan eguneratua egon beharko du eta lan-prebentzioaren eremuan delegatu bat eduki beharko du, plegu honen aurreko atal batean adierazi den moduan.
Nahitaez bete beharko dituzte segurtasun- eta babes-neurriak.
Garbiketa-lanak egiten direnean, enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna da bere langileek nahitaez bete beharreko araudi osoa betetzea, egin beharreko jardueran une oro aplikatu beharrekoa, hain zuzen ere, bai alderdi teknikoen aldetik bai segurtasun eta higienearen aldetik.
Era berean, enpresa adjudikaziodunaren langileek Muxikebarrik (horrelakorik izanez gero) duen barneko araubidea bete beharko dute, bereziki segurtasunari dagokionez. Horrez gain, egon daitezkeen gainerako funtzionamendu arau orokorrak ere bete beharko dituzte.
Enpresa adjudikaziodunak uneoro bete beharko du laneko arriskuak prebenitzeko araubide espezifikoa, eta hala, langileen segurtasuna eta osasuna bermatu beharko ditu. Bereziki bete beharko du Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta bere garapenerako araubidea.
Enpresa adjudikaziodunak 171/2004 Errege Dekretuak eskatzen duen dokumentazioaren trukea, prebentzio-zerbitzuen jardueren koordinazio arlokoa, egingo du, eta lan-arriskuen arduradunak egoki iritzitako beste edozein dokumentazioarena ere bai, garbiketa-zerbitzua ematean esku hartzen duten pertsonen ingurukoarena.
Lizitatzaileak bere adjudikazioa ezagutu bezain pronto garbiketa-lanei buruzko segurtasun-plana aurkeztu beharko du. Bertan, mantentze-lanean izan daitezkeen arrisku guztiak deskribatuko dira, baita erabiliko diren neurriak, bitartekoak eta babesak ere.
Aurreikusitako enpresak azpikontratatzen direnean, plegu honetatik eratorritako kontratuaren enpresa adjudikaziodunak berezko langileekin dituen erantzukizun berberak izango ditu azpikontratatutako langileekin ere.

Garbiketa-zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak kudeatutako langile guztiak hornituko ditu, azpikontratatutakoak barne, beren lanak egiteko nahitaezko segurtasun-neurri guztiez edo 31/1995 Legeak, Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzkoak, eta haren araudi osagarriak xedatutakoez.
Adjudikaziodunak mantentze-lanei buruzko segurtasun-plana bere langile eta lanetan parte hartuko duten pertsonei jakinaraziko die. Halaber, enpresa adjudikazioduna plana kontrolatzearen eta betearaztearen erantzulea izango da.
Segurtasun-plana betetzen ez bada, erantzukizuna adjudikaziodunak izango du eta, gainera, Kultur Etxeak zehatu ahal izango du.

9.4. Segurtasun neurriak

Adjudikaziodunak edozein lanen aurrean, horiek garatzeko esparrua mugatu beharko du lan horiek pertsonei arriskuren bat eragin diezaieketenean. Erabilitako babes-elementuak une oro egongo dira kontserbazio- eta seinaleztatze-egoera ezin hobean.
Aurreko paragrafoa ez betetzeagatik edo zabarkeriaz egiteagatik ezartzen den zehapena alde batera utzita, adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu hirugarrenek

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 35

kalteak izaten badituzte horrek ekarritako erantzukizunak, gutxienez 650.000 euroko erantzukizun zibileko poliza batekin.
Kontratistaren ardurapean egongo dira kontratua gauzatzean hirugarrenei sor diezazkiekeen kalte-galerak, zerbitzuaren funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioz sortuta badaude.
Adjudikaziodunaren kargura izango dira ondasun eta eskubideetan jasandako lesioengatik ordaindu beharreko kalte-ordainak, hori guztia kontratu eta herri-administrazioen ondare-erantzukizunari buruzko legeriarekin bat.
Horrez gain, beharrezkoa izango da kontratuaren enpresa adjudikaziodunak beharrezko seinaleztapenak izatea, bai barrukoak bai kanpokoak, Muxikebarriko erabiltzaileei garbiketa-jardueratik eratorritako arriskuez ohartarazteko, adibidez “lur hezea edo irristakorra”, aldi baterako sarbide-debekuak eta abar.
Erabilitako seinale guztiak garbi irakurri ahal izango dira, eta arduragabekeria- edo narriadura-sintoma guztiak saihestuko dira.

9.5. Ingurumena babesteko neurriak

Hondakinen titulartasuna enpresa adjudikaziodunarena izango da eta, ondorioz, bere kargura kudeatuko ditu zerbitzua ematean sortzen diren hondakin guztiak, bereziak eta arriskutsuak barne. Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak materialak eta produktuak biltegiratzeari buruzko indarrean dagoen legedia bete beharko du.
Lizitatzaileek kontratuaren xede den garbiketaren ondorioz sortzen diren hondakinak kudeatzean erabilitako protokoloak eguneratuta mantenduko dituzte.
Kultur Etxeak enpresa adjudikaziodunari hondakin arriskutsuei buruzko kontrol- eta jarraipen-dokumentuen kopia edo egokitzat jotzen duen beste edozein informazio eska diezaioke eta honek nahitaez entregatu beharko dio.

9.6. Komunikazio sistemak

Adjudikaziodunak bere kontura izan behar duen gutxieneko komunikazio-sistema hau izango da:

- Interneta eta posta elektronikoa: Kultur Etxearen eta adjudikaziodunaren artean informazioa errazago trukatzeko.
- Telefono mugikorrak: Zuzendariek eta beharrezko kudeaketa egiteko enpresa adjudikaziodunak izendatutako arduradunek telefono mugikorrak izan beharko dituzte.

Mantentze-lanen zerbitzuaren adjudikaziodunak “Telefono zenbaki-zerrenda” izeneko agiri bat emango die kontratua hastean Kultur Etxeak esleitutako teknikariei.

9.7. Uniformea

Garbiketa zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak derrigorrez bere kontura uniformea eman beharko die langile guztiei lanak gauzatzeko, azpikontratatutako langileei barne.
Horretarako, eskaintzan uniformearen proposamen bat jasoko da.
Jantziei dagokienez txukuntasuna falta bada, itxura behar bezalakoa ez bada edo uniformetasuna falta bada eta langileek instalakuntzetan jarrera zakarra badute edo tratua egokia ez baldin bada Kultur Etxearen langileekiko edo jendearekiko orokorrean, ardura adjudikaziodunarena izango da.

10. LAN ARLOKO HARREMANAK ETA BETEBEHARRAK

Enpresa adjudikaziodunak bere kontura jarri edo erabiltzen dituen langileak, azpikontratatu ditzakeen enpresarenak barne, soilik enpresa adjudikaziodunaren menpe egongo dira, eta eskubide eta betebehar guztiak izango ditu langile horien

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 35

gainean, betiere indarrean dagoen legediarekin eta ondoren emandakoarekin bat etorriz eta indarrean dauden araudia eta hitzarmenak betez. Hala eta guztiz ere, alderdi kontratatzailea inola ere ez da erantzulea izango enpresa adjudikaziodunak langileekin dituen betebeharrei dagokienez, nahiz eta hartutako neurriak eta iraizpenak kontratu hau betetzearen eta interpretatzearen zuzeneko edo zeharkako ondoriozkoak izan.
Garbiketa-taldeko langileek laneko aginduak eta jarraibideak beti jasoko dituzte kontratuaren enpresa adjudikaziodunak izendatutako ordezkariaren bitartez.

10.1. Gastu sozialak, tributuak eta zergak

Enpresa adjudikazioduna behartuta dago Gizarte Segurantzaren alorrean eta zergak ordaintzeari dagokionez lanean dituen langile guztiekin legea betetzera. Sei hilean behin Kultur Etxeak izendatutako teknikariari Gizarte Segurantzari egindako ordainketak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketak aurkeztuko dizkio, horien bitartez justifikatzeko langileen betebeharrak egunean daudela.
Horrez gain, kontratuaren enpresa adjudikazioduna egunean egon beharko da Muxikebarrin bere jarduera garatzeko nahitaez ordaindu beharreko zergekin eta tributuekin.
Gizarte gastuak eta langileen gaineko zergei buruzkoak adjudikaziodunaren kontura izango dira.
Betebehar horiek ez betetzeak automatikoki kontratua deuseztatzea ekarriko du.

10.2. Erreferentziazko lan-hitzarmena betetzea.

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du kontratuari aplikatu beharreko erreferentziazko hitzarmena. **Erreferentziazko hitzarmena ez betetzeak automatikoki kontratua deuseztatzea ekarriko du.**

10.3. Lanaldia

Zerbitzuko langileen lanaldia indarrean dagoen lege-xedapenetan ezarritakoa baino luzeagoa inola ere ez izatea bermatu beharko du enpresa adjudikaziodunak.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gebo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 35

IV. KAPITULUA. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK.

11. ESKATUTAKO ASEGURU-KONTRATUAK

Enpresa adjudikaziodunaren kargu izango dira lanen garapenaren bitartean sortutako kalte guztiak, edozein dela ere haien izaera eta bolumena.

Bere karguko arriskuak estaltzeko, enpresa adjudikaziodunak honako aseguru-kontratuak kontratatuko ditu eta mantenduko ditu, adjudikazio-aldi osoan eta egon daitezkeen luzapenetan. Adibide moduan zerrendatu dira, eta ez dira horietara mugatzen, helburua estaldura eraginkorra lortzea baita:

- Kontratuari esleitutako langile guztien gaixotasun- eta istripu-asegurua, baita adjudikaziodunak kontratupean dituen enpresa azpikontratatuen langileenak ere, legeari edo sektoreko edo banakako hitzarmenei jarraikiz.
- Kontratuaren xede diren lanetan esku hartzen duten adjudikaziodunaren berezko edo kontratatutako ibilgailu automobilen nahitaezko asegurua, nahitaezko eta borondatezko erantzukizun zibilaren arriskua estaliko duena, gehieneko muga kontratagarrirainokoa.
- Erantzukizun zibilaren bermea, honako aldaera hauetan: OROKORRA, LAN-ISTRIPUAK (PATRONALA ETA GURUTZATUA), NAHIGABEKO KUTSADURA ETA LANAREN OSTEKOA, eta defentsa eta fidantza zibil eta kriminalak bermatu beharko ditu, ASEGURATU gisa hartuta KULTUR ETXEA, HIRUGARRENAREN BALDINTZA MANTENDUTA, baita kontratu honen xede diren lanetan esku hartzen duten pertsona guztiak ere. Konpainia aseguratzaileek uko egiten diete aurretik aipatutako edozeinen aurka erabili ahal izango lituzketen subrogazio-eskubideei edo ekintzei, plegu honetatik eratorritako kontratuaren xede diren lanen ondorioz, zuzenean edo zeharka, ekintza edo ekintza ezaren ondorioz, hirugarrenei egotzi dakizkiekeen kalteen erreklamazioen aurrean, baita kontratu honen xedea betetzeko akats edo gutxiegitasun teknikoaren ondorioz ere.

  Hona hemen bermatu beharreko gutxieneko kopuruak:

  - Erantzukizun zibil orokorra (baita ibilgailuetako kargengatikoa ere): 650.000 €
  - Erantzukizun zibil patronala: 650.000 €
  - Erantzukizun zibil gurutzatua: 650.000 €
  - Nahigabeko kutsaduragatiko erantzukizun zibila: 650.000 €
  - Lanen osteko erantzukizun zibila (24 hilabete): 650.000 €
  - Biktima patronal eta gurutzatuarengatiko azpimuga: 100.000 €
  - Defentsa eta fidantza zibilak eta penalak: Sartuta.

Aipatutako aseguru-kontratuei dagozkien primak kontratuaren enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu, eta ondorio guztietarako ulertuko da haien zenbatekoa adjudikazioaren prezioetan jasanarazita dagoela.

Horrez gain, aseguru-kontratu horien indarraldian ezbeharren bat gertatuko balitz, kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren kargu ordainduko da bertan ezarritako edozein motatako balizko frankizia.

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak Kultur Etxearen kontratu arduradunari bidaliko dizkio aseguru polizen kopiak horiek behin betiko onetsi aurretik, arduradunak onetsi ditzan.

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez polizen indarraldia mantendu beharko du kontratuaren indarraldian eta egon daitezkeen luzapenetan.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 35

Enpresa adjudikaziodunak Kultur Etxearen kontratu arduradunari bidaliko dizkio polizen kopiak eta indarrean dauden primen ordainketa egiaztagiriak, kontratua formalizatu eta hogeita hamar eguneko epean.
Kontratua garatzen ari den bitartean ezbeharren bat gertatuko balitz, enpresa adjudikaziodunak berehala ezbeharraren edo istripuaren adierazpenaren bi kopia bidaliko ditu, gehienez ere bi eguneko epean.
Aseguru-polizetan klausula bat egongo da, Kultur Etxeak zuzenean konpainia aseguratzaileen aurrean haren instalazioetan gertatutako edo adierazitako ezbeharrez informatzeko izango duen eskubidea aitortuko duena.
Kultur Etxeak edozein unetan eskatu ahal izango dio enpresa adjudikaziodunari egiaztatu dezan aseguruak kontratatu eta ordaindu dituela, eta haien edukia edo indarraldia egiaztatu dezan. Enpresa adjudikaziodunak polizen eta ordainagirien kopia oso bat aurkeztu beharko du eskaera jaso eta astebeteko epean. Ulertuko da baldintza hori ez betetzeak arriskua dakarrela pertsonentzat, eta egoera horretarako plegu honek adierazitako zehapena aplikatuko da.
Klausula honetan ezarritako konpromisoak betetze aldera kontratatutako aseguruek ezin dute ezbeharren araberako azpimugarik eduki eta inola ere ez dituzte enpresa adjudikaziodunak plegu hauetako kontratuaren ondorioz dituen betebeharrak eta erantzukizunak mugatuko, beraz, ordaindu egin beharko ditu eskatutako muga edo bermeen gehiegikeriagatik edo akatsengatik sortutako gastuak, aseguruaren frankizien zenbatekoekin bat eginez.

11.1. Kultur Etxea erantzukizunetik salbuestea

Aseguru kontratu horietan jasota egongo da Kultur Etxearen aurka arriskuak bere gain hartzen dituen erakundearen erantzukizuna eta errepikatze eza adierazten duen klausula.

12. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Adjudikaziodunak gutxienez urtebetez egindako jarduketa guztiak bermatuko ditu eta bere kargura, Kultur Etxeari kosturik eragin gabe, gauzatuko ditu bere ekintzaren edo bere langileen ekintzaren ondorioz sortutako konponketetarako beharrezko ekintza guztiak.

13. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Adjudikazioduna edo eskuordetutako ordezkaria kasu guztietan Kultur Etxearen aurrean arduradun eta solaskide bakarra izango da plegu honen ondorioz sortu eta adjudikazio-kontratuan berretsitako betebehar guztiekiko.
Adjudikaziodunaren betebeharra da baldintzen plegu honetan jasotzen diren zehaztapenez gain, indarrean dagoen beste edozein lege xedapen edo bestelakoak betetzea, kontratuak irauten duen aldian zehar, baldin eta edonolako zerga- eta ekonomia-betebeharrei eragiten badie edo lotura badute kontratuarekin, lan-istripuarekin, lan-aseguruarekin, laneko segurtasun eta higienearekin eta lan-aurrekari edo -ondorioekin.
Adjudikaziodunak erantzukizun hauek ditu: emandako zerbitzuaren kalitatea eta plegu hau indarrean egon bitartean erabilitako materialen, elementuen eta horniketen kalitatea bermatzea; zerbitzuak barnean hartutako lanei atxikitako Kurtur Etxearen ordenantzetan jasotakoa betetzea eta agindutako zerbitzu horiek ematean instalazioek, operazioek, langileek eta bitartekoek eragindako istripuen edo kalteen aurrean erantzutea, kontratua betetze aldera.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 35

13.1. Elementu eta ekipamenduekiko erantzukizuna.

Ezinbesteko kasuak direla eta (suteak, hondamendiak, zuloak, etab) edo hirugarrenek kalteak edo apurketak egiten badituzte, adjudikaziodunak berehala jakinaraziko dio eraikinaren arduradunari eta/edo Kultur Etxeko teknikariei. Horiek, adjudikaziodunak emandako informazioaren arabera konponketa lanak eta berriz ere egoera onean uzteko lanak ebaluatuko dituzte.
Instalazioetan ekipamenduak eta materialak lapurtzen badituzte, adjudikaziodunak berehala arduradunari eta/edo Kultur Etxeko zerbitzu teknikoei jakinaraziko die, lapurtutakoaren datu zehatzak eskainiz.

13.2. Kudeaketaren eta funtzionamenduaren erantzukizuna.

Adjudikaziodunak administrazio-lanen nahiz bulego teknikoaren kudeaketa eta funtzionamenduaren erantzukizuna du eta, xede horrez, zeregin horretarako bitarteko eta langile arduratsu eta prestatuak izango ditu.
Bidezkoak ez diren fakturazioak eta/edo “hornitzailearen tarifaren” gainetik daudenak engainuzkotzat joko dira eta gainditutako zenbatekoaren pareko zigorpean egongo dira.
Bulego teknikoaren lanak Kultur etxearen en Bulego Teknikoak ezarriak dituen sistemekin bateragarri den euskarri informatiko batekin egingo dira.

13.3. Istripuen eta kalteen erantzukizuna.

Kontratua egikaritzean edo zerbitzua egikaritzean eta/edo horren ondorioengatik edozein izaeratako istripu edo kaltea badago, adjudikaziodunak izango du ardura. Gauza bera gertatuko da hirugarrenei edo erakundeari eragin diezaiekeen kalteekin.
Adjudikazioduna, halaber, langileek eragin edo paira ditzaketen istripuen eta kalteen erantzulea izango da, kontratatutako zerbitzuen prestazioak exijitutako lanak betetzearen ondorioz.
Erantzukizuna pertsonei eta eraikinei eta/edo instalazioei buruzkoa izan daiteke.

14. LANAK ZAINTZEA

Kultur Etxeak ez du erantzukizunik hartuko adjudikaziodunak (edo adjudikaziodunek) lana egin eta zerbitzua garatu bitartean Kultur Etxearen instalazioetan gorde dituen bitarteko tekniko eta materialen segurtasunaren gainean. Kontratistak, bidezkoa baderitzo, eta bere kontura, zaintza-zerbitzu bat ezarri ahalko du, lanek irauten duten denboran.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 35

V. KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.

15. ZEHAPEN ARAUBIDEA

Kontratuaren ondorioetarako zehatu daitekeen arau-haustetzat joko da agirian zehaztutako eskakizunak ez betetzea ekintzaz nahiz omisioz.

Zeha daitezkeen arau-hausteak euren garrantziaren arabera sailkatuko dira: ARINAK, LARRIAK EDO OSO LARRIAK izan daitezke, honako irizpide hauen arabera:

- **ARAU-HAUSTE ARINA:** Arau-hausteak arintzat joko dira baldin eta, zerbitzuaren prestazioan eragin kaltegarria izan arren, ez badira zerbitzuaren omisioen, zabarkeriaren edo asmo txarreko jarduketen ondoriozkoak, eta ez badiete arriskurik sortzen pertsona edo gauzei, ez instalazioen osagaien bizitza ekonomikoa laburtu, ezta erabiltzaileei eragozpenik sortu ere.
- **ARAU-HAUSTE LARRIA:** Honelakoak izango dira asmo txarreko jarduketen ondorioz gertatzen direnak, zerbitzua ez ematea, utzikeria, Kultur Etxearen teknikariek emandako jarraibideak ez betetzea, lanak oker egitea eta 5 arau hauste arin metatzea. Halaber, fakturak, azterketak, txostenak, parteak, planoak edo instalazioen eguneratze proiektuak faltsutzea ere arau hauste larria izango da.
- **ARAU-HAUSTE OSO LARRIA:** Halakotzat joko dira pertsonei arriskua sortzen dietenak, baita 5 arau-hauste larri pilatzea ere.

15.1. Beste arau-hauste batzuk, eta haien sailkapena

Arau-hauste **arintzat** joko dira honako inguruabar hauek:

- Langileek araubidezko uniformea ez izatea eta txukun ez egotea.
- Errespetu falta, hezibide falta edo tratu desegokia ematea Kultur Etxearen langileei, artistei edo Muxikebarriko esparrura sartzen den edozein pertsonari.
- Baldintza tekniko edo administratiboen plegua ez betetzea, ez bada arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo.

Arau-hauste **larritzat** joko dira honako inguruabar hauek:

- Enpresak edo esleitutako arduradunak zerbitzua ematen ari diren langileak ez zaintzea.
- Enpresa adjudikazioduna kontratatutako zerbitzuak ez beste lanetan egotea, zerbitzuak ematen ari diren bitartean.
- Arrazoi justifikaturik gabe eta aldez aurretik idatziz jakinarazi gabe zerbitzua aldatzea.
- Instalazioen egoera onaren eta zerbitzuaren garapenaren kontrakoak diren egoerak ez jakinaraztea, bai kalitateari bai langileei eta bitartekoei dagokienez.
- Langileen liskarrak edo borrokak, beren artekoak, Kultur Etxearen langileekin edo Muxikebarriko esparruan sartzen den beste edonorekin.
- Zerbitzua ondo ez ematea, Kultur Etxearen langileek hautematen badute, eta utzikeriaren, gaitasun ezaren, edo enpresa adjudikaziodunaren langileen jarrera txarraren ondorioa bada.
- Kontratuaren arduradunari berehala ez ematea enpresa-larrialdiengatik edo arrazoi baliokideengatik zerbitzua pleguetan aurreikusitako baldintzetan eman ezin den egoeren berri, dela ohiko zerbitzua, dela ezohikoa.
- Kultur Etxearen langileek zerbitzuak ikuskatu ditzaten galaraztea.
- Nahita pleguak ez betetzea erraztea.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 35

Arau-hauste **oso larritzat** joko dira honako inguruabar hauek:

- Kontratua beste pertsona fisiko edo juridiko bati lagatzea. Kultur Etxearen berariazko baimenik gabe.
- Enpresa adjudikaziodunak bere langileekin ez betetzea Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak eta gainerakoak.
- Zinpeko adierazpenetan jasotako konpromisoak ez betetzea.
- Arrazoi justifikaturik gabe edo aldez aurretik idatziz jakinarazi gabe zerbitzua aldatzea.
- Ordenamendu juridikoaren arabera adjudikaziodunak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen arau-hausteen inguruabarrak.
- Zerbitzuari atxikitako edozein langileren kontratua aldatzea Kultur Etxeak hori jakin gabe eta adostasuna adierazi gabe.

15.2. Arau-hausteen zehapenen zenbatekoa.

- ARAU-HAUSTE ARINAK: Arau-hauste arin bakoitzagatik gehienez 300 euroko isuna ezarri ahal izango da.
- ARAU-HAUSTE LARRIAK: Arau-hauste larri bakoitzagatik gehienez 600 euroko zehapen ekonomikoa edo isuna ezarri ahal izango da.
- ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK: Horrelako arau-hausteen garrantzia kontuan izanik, gehienez 12.000 euroko isunak ezarri ahal izango dira haiengatik; ez da ordainduko kontratuko kasuan kasuko hileko kuota, eta are gehiago, kontratua suntsiarazi ere egin ahal izango da, bidezkoa izanez gero.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 35

VI. KAPITULUA. BESTE ALDERDI BATZUK.

16. EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA

Lanak eskainitako prezioen arabera ordainduko dira.
Txostenen, azterketen, memorien eta eguneratzeen ordainketa dokumentazioa entregatu eta Kultur Etxearen zerbitzu teknikoek onartu ondoren egingo da, epigrafe honetan ezarritako ehunekoen arabera.
Finkatutako kopurua gauzatuko den lanaren fase bakoitzari esleitutako kopuruen baturari dagokiona da. Hauxe da, ehunekoetan adierazita, adjudikazio-prezioaren arabera:

- Lanen segurtasun-plana …..…….…..…..…… % 5,4
- Telefono-zenbakien zerrenda .....…….…… % 1
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, lehenengo hilabetekoa ……..…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, bigarren hilabetekoa ….....…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, hirugarren hilabetekoa ……..…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, laugarren hilabetekoa ……..…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, bosgarren hilabetekoa .....…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, seigarren hilabetekoa .....…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, zazpigarren hilabetekoa .....…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, zortzigarren hilabetekoa .....…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, bederatzigarren hilabetekoa ..…… % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, hamargarren hilabetekoa ….....% 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, hamaikagarren hilabetekoa ……. % 7,8
- Jardueren hileroko txostena, hileroko gizarte segurantzako dokumentazioa, laneko eta garbiketa lanen partea, hamabigarren hilabetekoa ….…… % 7,8

Hasierako Garbiketa Planarekin bat eginda, kontratua luzatuz gero, aipatutako Garbiketa Planaren zerbitzuaren premiei erantzuteko beharrezko egokitzapenak egin beharko lirateke baita teléfono zenbakien zerrenda eta Segurtasun Plana berrikusi ere. Berrikuspen horiek egin, kontratuaren arduradunari jakinarazi eta hori guztia onartu eta baliozkotu ondoren, kontzeptu horiek kobratzeko eskubidea sortuko da.

17. LIZITAZIOAREN OINARRI PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko prezioa 160.000,00 € izango da, BEZa barne, urte bakoitzeko; kontratu honen beharrari, egokitasunari, kaudimenari eta puntuazioari buruzko txostenak jasotzen duen prezioa ikusteko, kalkuluaren banakapenera jo behar da.
Zuzeneko kostuak: Kontratuaren guztizkoaren % 85, 136.000,00 €, BEZa barne.
Zeharkako kostuak: Kontratuaren guztizkoaren % 15, 24.000,00 €, BEZa barne.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 35

Soldaten kostuak Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketako Sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren arabera kalkulatu dira. Hura hartzen da erreferentzia moduan soldaten kostuak kategoria profesionalaren arabera xehatzeko; izan ere, hitzarmen horretan xehatuta daude egikaritzeko langileen soldatak.

Generoagatiko desagregazioari dagokionez aipatu behar da automatikoa dela, hau da, peoi batek gastu bera du gizona izan ala emakumea izan, dagozkion generoari buruzko legeek ezartzen duten moduan.

Honako hau da zenbatespena, lizitazioaren balioaren kostuak justifikatzeari eta genero bereizketari buruzko 100.2. artikuluan jasotakoari jarraituz:

ZERBITZUAREN AURREKONTU BANATUA

ZUZENEKO KOSTUAK	GASTUAK: Eskulana, zenbatetsia		106.674,07
	GASTUAK: Materialak, zenbatetsia		2.222,38
	GASTUAK: Makineria, bitarteko osagarriak, zenbatetsia		2.222,38
ZEHARKAKO KOSTUAK, GASTU OROKORRAK		% 13	14.445,44
INDUSTRIA IRABAZIA		% 6	6.667,13
BEZa		% 21	27.768,60
URTEKO LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA			**160.000,00**

BANAKETA GASTUAK: Langileak	KATEGORIA (pertsona kop.)	GENEROA (pertsona kop.)	ZENBATEKOA (euro/ hilabetean)
Bizkaiko 2018ko eraikinen eta lokalen hitzarmena	Langile-garbitzaile 4	G	HITZARMENA
	Langile-garbitzaile 3	E	HITZARMENA
	Arduradun 1	G/E	HITZARMENA

18. <u>LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA, KONTRATATZEKO GAITASUNA FROGATZEA.</u>

Eska daitekeen kontratistaren sailkapenari dagokionez, SPKLren 9/2017 Legearen 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitazioaren zenbatekoa eta enpresa lizitatzaileei eskatzen zaien kaudimen teknikoa honako hauek dira:

- Azken 3 urteetan, gutxienez, herritarrei irekitako eraikinetako barneak garbitzeko kontratu bateko esperientzia izatea, gutxienez 77.000 biztanle dituen herri batean edo batera gutxienez 77.000 biztanle dituzten 3 herritako 3 kontratutan.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gexo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 35

Kontratistaren sailkapena, gaur egun ez dena eskatzen zerbitzu kontratu honetarako; zerbitzu kontratu honetan kontratistak gaitasun teknikoa ordezkatzeko erabili ahal izango duena hauxe da:

U TALDEA ZERBITZU OROKORRAK.
1 azpitaldea. Garbiketa orokorreko zerbitzuak.
Kategoria: 1.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena justifikatzeko, urteko negozio-bolumena 133.000,00 eurokoa izango da gutxienez, azken 3 urteetan negozio-bolumen handiena duen urtean.

9/2017 SPKLren 76.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, enpresa lizitatzaileak bitartekoak atxiki ditzan eskatzeari dagokionez, eskaintzan nahitaez hurrengo baldintza teknikoak bete beharko dira eta betetzen ez badira bazter daiteke:

- Gutxieneko NBE elementuak langileentzat: filtrodun FFP3 maskarak, lanerako arropa eta aurpegirako pantailak eta eskularruak, hilabete baterako.
- Kaltetu daitezkeen gelak tratatzeko ozono sortzaile mugikor 1, gutxienez.
- Gutxienez, 2 hilabeterako garbiketarako elementu suntsikorrak.
-Gutxienez, 2 hilabeterako komunetarako elementu suntsikorrak, besteak beste, xaboia eta gel hidroalkoholikoak.
- Flitrodun FFP2 motako 1.000 maskara, Kultur Etxeak eskuragarri izan ditzan, eta 100 FFP3 motatakoak, iragazkidunak.
- Kontratuaren arduradun bat, subrogazioari lotu gabeko langilea; hori izango da lana zuzenduko duena, egunero harremanetan egongo delarik Kultur Etxekoeko teknikariarekin, eta zerbitzuaren arduradun nagusia izango da, honakoetan prestakuntza izango duelarik: osasun okupazionala, segurtasun estandarrak, garbiketa metodoak eta zerbitzuarekin lotutako ingurumen alderdiak. Gainera, azken 3 urteetan, gutxienez eraikin publikoen barneko garbiketako zerbitzu kontratu bateko esperientzia duen pertsona izango da, gutxienez 77.000 biztanleko udalerri batean edo gutxienez batera 77.000 biztanle biltzen dituzten 3 udalerritan 3 kontratura arte.

19. <u>KONTRATUAREN IRAUPENA</u>

Oraingo kontratuaren iraupena 1+1 URTEkoa izango da (urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin), Zerbitzuen Hasiera Aktaren formalizazio datako hurrengo egunetik aurrera izateko..

20. <u>PRESTAZIOAK BERRIKUSTEA</u>

Kultur Etxearen organo arduradunei dagokie adjudikaziodunari eskatutako lanak berrikustea, jardueren prezioek une oro aldez aurretiko hasierako balorazioa dutela kontuan hartuta.

Prestazioak ondo bete daitezen, Kultur Etxeak adjudikaziodunari oinarrizko datu tekniko, administratibo edo bereziak eman beharko dizkio.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 35

Berrikuspen-zeregin hori betez, eta lan horiek beharretara, arau teknikoetara eta emandako prezioetara egokitzen direla bermatzeko asmoz, Kultur Etxearen organo arduradunek beharrezko jarraibideak eman ahalko dizkiote adjudikaziodunari, eta azken horrek nahitaez bete beharko ditu.
Gainera, prestazio on gehiago lortzeko eta zerbitzuaren kalitate erreala lortzeko, administrazio kontratatzailearen eskumena izango da garbiketa zerbitzuen prestazioari ikuskaritza egitea eta kalitate sistema ezartzea. Ikuskaritzaren eta kalitate sistema horren oinarrizko jarduerak kontrola gauzatzea eta garbiketa maila ebaluatzea izango dira, modu jarraituan egingo dira, eta egokitzat jotzen den maiztasuna errespetatuz.
Era berean, Kultur Etxearen organo arduradunek izendatutako langileak aldian-aldian adjudikaziodunaren bulego, lantegi eta instalazioetara joan ahalko dira, beharrezkotzat jotzen bada, edozein lan era egokian garatzen ari dela egiaztatzeko eta planteatu daitezkeen gaiak ebazteko.

21. AGIRI TEKNIKOAK AURKEZTEA

Lehiaketan parte hartu nahi duten lizitatzaileek, aurkeztu behar dute deialdiko iragarkian ezarritako epean eta pliegu teknikoetan zehaztutako gutunazaletan, hurrengo dokumentazioa:

- **Kontrol-plan propioa.**

Informatika-programari buruzko azalpen-txostena aurkeztuko da, eskainitako prestazioak ematen direla ziurtatzen duena eta Kultur Etxeko langileek kontrol tresna gisa erabili ahal izango dutena.

- **Memoria metodologikoa.**

Hurrengo dokumentuak gutxienez dauzkan memoria metodologikoa emango da:

A) Prebentzioaren ordezkariaren eta delegatuaren proposamena.

B) Zerbitzua osatzen duten pertsonen organigrama. Gutxienez titulazioa, eskainitako zerbitzuan esleitutako lanpostua eta zerbitzua betetzeko laneko ordutegia jaso beharko dira bertan.

C) Antolaketa, bitartekoak eta kontratuarekiko arduraldia.

Hurrengo dokumentazioa erantsiko da:

- Giza baliabideak eta arduraldia. Parte-hartzaileen zerrenda, izenik gabe, titulazioa edo lanbide kategoria, funtzioa eta arduraldia (hileko orduetan). Lantokia zehatz-mehatz zehaztuko da (obra, bulegoa, aldian behingo bisitak).
- Garbitasun egoera mantentzeko aldizkako lanetarako, **II. eranskina** behar bezala beteta aurkeztu beharko da.
- Lanak egiteko proposatzen diren bitarteko osagarriak, material, erreminta eta garraio-elementuen zerrenda.
- Langileak aurkitzeko eta haien interkomunikaziorako sistema baten proposamena.

D) Proposamen teknikoa.

Kontratua egikaritzearen moduari buruzko memoria metodologikoa, plegu honetan jasotako espezifikazio guztiei jarraitzen diena, eta honako hauek zehaztuko dituena: **Eraikinaren garbiketa-plana**, barruan hartuko dituena maiztasunak, egin beharreko lanak eta erabili beharreko metodoak, eragiketen programa eta

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 35

proposatutako baliabide materialak eta giza baliabideak. Horrez gain, lantaldearen egitura zehaztuko du, zerbitzuaren funtzionamendua bermatuko duen pertsona erantzulea berariaz adieraziko du eta langileren baten bajarik, oporrik eta abarrik badago erabiliko den jarraitasun-plana adieraziko da bertan. Zerbitzu azkar eta eraginkorraren bermea.
Metodologiaren jarduketa-modua, prozedurak, bitartekoak eta abar, plegu honetan zehaztutako jarduketei egokituko zaie, hauei:

- Aldizkako garbiketa lanak
- Maiztasunez egin beharreko garbiketa lanak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa sakona
- Lurzoruen tratamendua
- Garbiketa bereziak

Memoriak metodologikoak (A,B,C eta D aldenduta) DIN-A4-a 20 orri PDF izango ditu gehienez, Arial 12 letrarekin eta aurkeztu behar izango du PDF fitxategi BAKAR BATean.

- **Produktuen proposamena.** Eskaintzaileak Ecolabel etiketa edo horren baliokidea duten produktuen –zerbitzuan erabiliko dituen produktuen– zerrenda bat erantsiko du. Txosten bat emango da produktu horien funtzioa edo zer azaletan erabil daitekeen adierazita, dosifikazioa, eta 255/2003 Errege Dekretuaren araberako etiketak eta segurtasun-fitxak ere erantsiko ditu, zerrendako produktu guztietarako.

- **Uniformearen proposamena.** Eskaintzaileak langileentzako uniforme proposamena eskainiko du, ohikoa eta ekitaldietarako bigarren uniformea (beltza) eta argi erakutsi beharko da uniforme hori, kolorea, forma, langilearen izenaren identifikazioa eta antzekoak adieraziz. Uniformea deskribatzen duen dokumentazio idatzia eta grafikoa erantsiko da.

22. INSTALAZIOETARAKO BISITA

Instalazioetara bisita egiteko egun bat ezarriko da.
Instalazioak nahitaez bisitatu beharko dituzte lizitazioan parte hartu behar duten enpresek. Bisita baino egun bat lehenago, 12:00ak baino lehen, instalazioak bisitatzeko interesa duten enpresek interes hori adierazi beharko dute helbide honetara mezu elektroniko bat bidalita: kontratazio@getxo.eus. Bertan honako hauek adierazi beharko dituzte: enpresaren izena eta erakundetik bisitara joango diren pertsonen izen-abizenak.

23. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK

Europar Batasuneko Ecolabel etiketa edo baliokidea duten produktuak erabili beharko dira, (EE) 66/2010 araubidean oinarritutakoak.

Enpresa esleipendunak sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat duela egiaztatu beharko du.
Aurreko exekuzio baldintza bereziak ez betetzea hutsegite arina izango da, eta ZTBaren 15. klausulan arau hauste arinetarako ezarritako zehapen araubidean xedatutakoaren arabera zigortuko da.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 35

Igo.ERANSKINA: PLANOAK

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gebo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 35

II. ERANSKINA

	ASTELEHENA					ASTEARTEA					ASTEAZKENA					OSTEGUNA					OSTIRALA					LARUNBATA					IGANDEA				
LANGILEAK	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
LANALDIAK																																			
06:00 - 07:00																																			
07:00 - 08:00																																			
08:00 - 09:00																																			
09:00 - 10:00																																			
10:00 - 11:00																																			
11:00 - 12:00																																			
12:00 - 13:00																																			
13:00 - 14:00																																			
14:00 - 15:00																																			
15:00 - 16:00																																			
16:00 - 17:00																																			
17:00 - 18:00																																			
18:00 - 19:00																																			
19:00 - 20:00																																			
20:00 - 21:00																																			
21:00 - 22:00																																			
LANGILEEN KOPURUA																																			

MUXIKEBARRI GARBITZEKO LANGILEAK ETA ORDUAK: MANTENTZE GARBIKETAK

OHARRA: Proposamena aurkezteko beharrezkoa izanez gero, asteguneko zutabeen kopurua aldatu eta handiagotu egin daiteke.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYRAYKCTAL-JSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.gobierno-kultura.eus/esPublico Gestiona plataforma batetik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 35

III.ERANSKINA: SUBROGATUTAKO LANGILEEN ZERRENDA.

ID	LANBIDE KATEGORIA	ANTZINAKOTASUNA	KODEA	KONTRATUA	URTEKO GORDINA	JAURDUNALDIA %	ORDUAK ASTERO	JAIOTZE-DATA	HITZARMENA
1	Garbitzailea	01/10/2021	209	MUGAGABEA	12.300,00 €	71,43	25	15/10/1964	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
2	Garbitzailea	24/12/2021	209	MUGAGABEA	12.300,00 €	71,43	25	15/08/1972	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
3	Garbitzailea	16/01/2017	209	MUGAGABEA	12.300,00 €	71,43	25	23/11/1975	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
4	Garbitzailea	19/12/2019	501	OBRAKOA	12.300,00 €	71,43	25	13/09/1979	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
5	Garbitzailea	13/10/2020	501	OBRAKOA	12.300,00 €	71,43	25	17/02/1958	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
6	Taldeko edo eraikineko arduraduna	25/03/2019	189	MUGAGABEA	17.723,77 €	100,00	35	23/10/1964	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
7	Taldeko edo eraikineko arduraduna *	06/10/2021	410	ORDEZKAPENA (baja bukatu arte)	17.723,77 €	100,00	35	21/04/1969	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
8	Garbitzailea	07/01/2020	209	MUGAGABEA	12.300,00 €	71,43	25	29/09/1958	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa
9	Garbitzailea *	06/05/2022	510	ORDEZKAPENA (baja bukatu arte)	12.300,00 €	71,43	25	09/03/1983	Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektoreko hitzarmen kolektiboa

* 7. pertsonak Aldi baterako Ezintasuneko egoeran dagoen 6.a ordezkatuko du, eta 9.ak 8.a, arrazoi beragatik.

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 35

Baliozkotze Kod.: 5JHGNYPEYKCTALASJSPK6AGTG
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 35